

AIORA RENTERIA



kultura

aldizkaria



Aurkibidea

Editoriala (2)

Euskararen jakingarriak: Korrika! (3)

Gure irakasleak: Josu Lartategi (4)


Literatura txokoa (5)

Herri txikian, handiak: Aiora Renteria (6-7)

Gure ikasleak: Eduardo Florido/ Sonia Miguelez (8-9)

Kultur ekintzak (10)

Denbora pasak: (11)



Txillardeggi,
21. KORRIKAren omendua.

**Txillardeggi (1929-2012),
donostiar hizkuntzalari,
idazle eta politikaria izan zen.**

Txillardeggi 1929ko irailaren 27an jaio zen, Donostiako Antigua auzoan. Ama piano-irakaslea zen; aitak fabrika txiki bat zuen, litografiak egiten zituen. Gurasoak euskaldunak ziren, baina etxean gaztelaniaz mintzatzen ziren; horregatik, Txillardeggi gazteak bere kabuz hasi behar izan zuen euskara ikasten, 1948an.

1954an Txillardeggi ezizena erabiltzen hasi zen, bere jaiotetxearen ondoko etxearen izena. Txillardegik ondare handia utzi zuen literaturan, ikerkuntzan, irakaskuntzan, euskalgintzan...

Euskara batuaren 50. urteurrena ospatu berri dugula,
21. KORRIKAK Txillardeggi omenduko du, euskara batuaren sorreraren bultzatzaile nagusietako bat izan zelako.

Euskararen jakingarriak: Korrika!

Badator KORRIKA!

KORRIKA euskararen aldeko ekitaldirik handiena eta ikusgarriena da. Hamaika egunez milaka eta milaka lagun ibiltzen dira, gau eta egun, gelditu gabe. Euskal Herri osoan 2.000 kilometro baino gehiago egiten dira korrika.

Korrika egiten dugu, bai. Baina helburua ez da kirola egitea. **KORRIKAk euskararen ezagutza, erabilera eta normalizazioa bultzatu nahi ditu, eta helburu horiekin guztiekin bat egiten dute Ulibarri Eusaltegiko ikasleak, euskararekin bat.**



Hona hemen gure ikasleak, Korrikako petoen irabazleak.

KORRIKA! KORRIKA!



Beatriz
De Miguel
Bilbotarra
45 urte



Carmen
Albert
Sanchis
Murtziarra
33 urte



Itziar
Agiriano
Alonsotegiara
55 urte



Antonio
Benigno
Bilbotarra
61 urte

KORRIKA!

KORRIKA! Tipi-tapa, tipi-tapa, KORRIKA!

aldizkaria

Gure irakasleak: Josu Lartategi



Josu Lartategi
Deustuarra
49 urte
Ulibarriko irakaslea eta idazlea

Hogei urtetik gora eman ditu euskara irakasle Ulibarri Euskaltegian, eta beste horrenbeste liburutik gora idatzi izan ditu Josuk urte horietan guztietan. Egunkari eta aldizkarietan kolaborazioak, itzulpenak, poemak, ipuinak, eleberrri laburrak... ia genero guztietan aritu da.

Lartategiren esanetan, gaztetako estilo barrokotik estilo doi eta zehatzagora igaro da bere idazkera.

Ezagut dezagun Lartategi hurbiletik!

L-amiak, mitologia, fikzioko pertsonaiak... erabiltzen dituzu zure eleberrietan?

Pare batean baino ez ditut erabili, euskal pertsonaia mitologikoak, batetik, oso literarioak dira, politik, misteriotsuak, eta bestetik, kultura ikasteko baliagarriak.

A-berastasuna... egokitzen al duzu zure testuen hizkuntza-maila balizko irakurleen gaitasunaren arabera?

Bai, aberastasuna eta gainerako guztia ere egokitu behar da. Literatura mailakatua oso hausnartua da, teknikoki egokitu beharra dago: luzera, forma, edukia, sintaxia... den-dena neurtuta dago. Esan nahi duzuna mailaren arabera moldatu behar duzu. Ideiak molde desberdinetan esatea ariketa polita da, erronka txikia idazlearentzat.

R-adixoa ala irratia? Euskalkiek ba al dute lekuri zure liburuetan?

Literatura mailakatuaz ari bagara, maila apalean erabil daiteke, bai. Ahozkotasunetik aprobetxagarriak dira euskalkiak, eta, egia esanda, "euskañola" ere bai. Ikasle gehienek abiapuntua ez da euskara, ez da euskalkia, gaztelania da.

T-witer, Facebook... erabiltzen al dituzue idazleek sare sozialak irakurleekin zuzenean harremanetan jartzeko?

Literaturan, nire iritziz, beste esparru batzuetan baino apalago erabiltzen dira sare sozialak.. Nire kasuan, daukadan denbora apurra ez da bereziki sare sozialei emateko, baizik eta teknologietatik urruntzeko.

Nahiago dut harremanetan jarri txoriekin, kar-kar.

A-nimatu. Zer esango zenieke euskaltegiako ikasleei zure liburuak irakurtzen animatzeko?

Irudiaren eta itxurakeriaren gizartean bizi gara; literatura, berriz, oso intimoa da, zure buruaz eta inguruaz hausnartzeko tarte. Nolabait bakardadean jarduteko. Literatura XIX. mendeko aisia zen, baina egungo aisia ez du literaturak soilik betetzen. Literaturazaleak ez du animo handirik behar; irakurzalea, berez, liburu-dendetara doa, liburutegietara...

kultura

Literatura txokoa

T-entazioa. Literaturatik bizitzeko tentaziorik sentitu duzu?

Euskal literaturatik ezin da bizi, ez dago masa nahikorik normaltasunez bizitzeko. Hertzainak taldekoek esaten zuten bezala, "Euskadin rokanrolak ez du inoiz dirurik emanen..." ba literaturak ere ez. Jendeak badu oraindik literaturaz oso iritzi erromantikoa; pentsatzen dute argitaratzen duzulako asko irabazten duzula. Hori ez da zuzena, kasu batzuetan dirua ere galtzen da eta.

E-uskara. Zer da zuretzat?


Euskaraz idaztea erabaki bat da. Sasoi bateko erabakia izan zen, gauza askorekin du zerikusia: kulturaren, literaturaren eta euskararen militantea izatearekin. Eta hori erabaki kontzientea da. Prozesu literarioak zera eskatzen du: hizkuntza horretan gustura egotea, menperatzea, eta erraminta kulturalak eta mentalak edukitzea.

G-azteak, helduak... Zein idazle profiletarako duzu gustukoaren idaztea?


Literatura mailakatuaren ezaugarri da ez daukala adinik; beraz, gaiak markatuko du irakurlearen profila zein den. Esango nuke gustukoaren helduak ditudala, baina egia esan, gazteen eta helduen arteko literaturan ez dut alde berezirik ikusten; haurren eta helduen literaturaren artean bai, ordea.

I-rudimena, inspirazioa... nondik ateratzen duzu?

Irudimena berezko zerbait da, bizitza guztian lantzen den zerbait. Inspirazioa gogoa eta lana da. Normalean badago mundu inkontziente bat: norberari zer gustatzen zaion, zer ikusten duen zinean, zer irakurtzen duen literaturan... Poemak eta ipuinak idatzi izan ditut, eta horietan inspirazioa esperientzia "bibentziala" izan da.




Liburu batzuei maitasun berezia hartzen diezu. Arrazoiak asko dira: ohi baino asebateago geratzen zarela; gainerakoek baino lotura pertsonalagoak dituela; irakurleen iritziak; e.a.



Charles Bukowski idazle iparramerikarraren poema-antologia paratu nuen SUSA argitaletxearekin, 1997an. Euskarara ekarri ditudan lanen artean horixe da nire gogokoena. Oso kritika onak jaso nituen. Pentsa, Sarrionandiaren beraren lorea jaso nuen!

ELKAR argitaletxearekin argitaratu ditut azkenak: **Otsoa**, Siberiako lorea, Geminiko nebulosa eta Pinky pailazoa. Ikastetxe batean baino gehiagotan konturatu naiz gaztetxoek oso gogoko dutela otsoari buruzko istorioa, modu berezian bizi dutela, eta halaxe jakinarazi didate. Halakoak oso pozgarriak dira, noski.



Azkenik, ikasle batek ere gauza bitxia esan zidan behin; alegia, amesgaiztoak izan zituela "**Pinky pailazoa**" irakurtzean. Pentsatu nahi dut kritika ona dela hori, kontuan izanda beldurrezko istorioa dela.

aldizkaria

Herri txikian, handiak

Aiora Renteria

ZEA MAYS musika talde ezaguna 1997an sortu zen Bilbon. Hogei urteko ibilbide luzean mundu osoan zehar ibili dira euskal musika jotzen. Aiora Renteria taldeko abeslariarekin izan gara, musikaz eta euskaraz mintzatzeko. Merkatuan dituzten zortzi diskoen izenburuak abiapuntutzat hartu ditugu galdera sorta egiteko.



Zer esan nahi du ZEA MAYSek?

Artoaren izen zientifikoa da, liburu batean topatu genuen eta oso hitz polita iruditu zitzaigun duen sonoritateagatik

Zerk ematen dizu egun ELEKTRIZITATEA, bizipoza?

Niri bizipoza musikak ematen dit. Txikitan biolontxelo, gitarra eta ahal nituen instrumentu guztiak jotzen nituen; egun, Zea Mayseko kantaria ez ezik, musika irakaslea ere banaiz. Beti musikaz inguratuta bizi izan naiz.

HARROBIAN sinesten al duzu?

Non daude taldearen sustraiak?

"Itoiz" eta "Hertzainak" oso garrantzitsuak izan dira guretzat. Talde amerikano eta ingeles asko entzuten ditugu. Euskal Herrian ere oso harrobi interesgarria dugu, estilo asko jorratzen dira eta hori oso aberasgarria da, horrek asko zabaltzen ditu gure kultura eta gure hizkuntza.

"SORTUZ, GRABITATEAREN AURKA" izena du laugarren diskoak.

Inflexio puntua izan zen disko hau. Letretan eman genuen aldaketa nagusia, eguneroko kontuak era naturalean kontatzen hasi ginen. Nahiz eta grabitateak beherantz erakartzen gaituen, lortu egin genuen disko berria sortzea, eta guretzat oso une inportantea izan zen.

Zein da zure MORPHINA, zure "droga" pertsonala?

Musikak ematen dit indarra gehienbat. Abesteak eta talde bat izateak, kontzertuak eta diskoak egiteak harrapatu egiten zaitu. Bizitzeko era bat da; kantatzen dudanean barruan ditudan gauza asko ateratzen dira.

Zergatik eusk-ERA? Zerk bultzatu zaituzte euskaraz kantatzera?

Nire ama-hizkuntza euskara da, eta horrela ateratzen zaizkit letrak. Hasiera batean gitarra jotzen hasi nintzenean eta kantak egiten hasi nintzenean, ingelesez egiten nituen, baina ez zuen funtzionatzen. Zergatik? Ez zelako benetakoa, oso behartua zen niretzat. Euskaraz hasi nintzenean, kantak problema gabe sortzen ziren. Guk euskaraz kantatzen dugu horrela ateratzen delako

Zea Mays egun baDA, inspirazioa nondik hartzen duzu?

Letra guztiak neuk egiten ditut eta inspirazioa eguneroko gauzetatik hartzen dut, ikusten dudana, munduan gertatzen dena, bizitzen duguna... gehienbat sentimenduei buruz hitz egiten dugu, zer sentitzen dugun gauzen aurrean. Une batean gertatutakoari heldu eta hortik tiraka ateratzen da letra bat. Olerkien modukoak dira letrak, baina erritmika desberdinarekin.



ZEA MAYS

kultura

Aiora Renteria

HARRO zaude egindako bidearekin? Asebate egiten zaitu?

Bai, asko. Eta gerora egiteko ditugun planek ere asebetetzen gaituzte:: Berlinera jotzen joango gara bi aste barru eta disko berria prestatzen gabiltza, Durangoko azokan aurkezteko.

Zea Mayseko Asier Basabek, bateria joleak, Ulibarri euskaltegia ikasi zuen euskara.

Zer esango zenieke egun euskara ikasteko bide horretan ari diren gure ikasleei?

Euskara ez da beste hizkuntza batzuk baino zailagoa, bakoitzak duen gaitasunaren arabera izango zaio zailagoa edo errazagoa. Nik esango nieke aurrera jarraitzeko eta lana moduan hartu beharrean, hau egin behar dut eta hau lortu behar dut... euskaraz disfrutatzeke!

Zer eman dio euskarak Zea Maysi?


Euskara gure hizkuntza da, eta munduan zehar ibili gara euskaraz kantatzen, Mexikon, Japonian, Kanadan, Londresen, Liverpoolen, Parisen, Amsterdamen, Hagan, Berlinen....

Zenbat urtean egon gara musika ingelesez entzuten ulertu barik? Euskaraz berdin.


Euskara oso musikala da, oso sonoritate polita du, oso atsegina da belarrirako. Ez da den-dena ulertu behar musikaz disfrutatzeke, musika bera hizkuntza internazionala baita. Mundua ezagutzeko beste era bat da musika, oso aberasgarria.



1998 - ZEA MAYS




2000 - ELEKTRIZITATEA



2002 - HARROBIAN



2005 - SORTUZ, GRABITATEAREN AURKA



2007- MORPHINA



2010 - ERA



2013 - DA



2016 - HARRO

Eman belztutako hitzen sinonimo bana



"NEGUA JOAN DA TA"

Elurrak joan direnean nire mendien artean

Eguzkia teloian atzealdean (1) da

Ateratzeko (2) beldur da, beldur eszenikoa

Aspaldi (3) antzeztu ez duen obra honetan

Izpi txiki txikiren bat agertuz doa gaurkoan

Poztasun (4) handi batek besarkatzen nau

Mesedez (5) ozen esan negua joan egin dela

Nire arima hotzak ez du sinisten eta

Laztandu (6) nazazu orain, ur urdinen artean

Orain lainorik ez da, aurpegi biluziak

Ta larrua jotzean garrasirik (7) ozenena,

Gordin amaigabea, negua joan da ta

Jaio berrien antzera (8) taupaden beharra dut orain

Belarriekin ikusteko nire begiek entzuten (9) ez dutena

Mesedez ozen esan negua joan egin dela

Izara guztiak erre ditut eta

Soinu bakar bakarra zure bularraldean

Negua joan da ta

Borobildu zaizkit ertzak zure ondoan (10)

Izpi lasaigarri bat

Negua joan da ta, negua joan da ta...

Sinonimoak

- | | | | | |
|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| 01. _____ | 02. _____ | 03. _____ | 04. _____ | 05. _____ |
| 06. _____ | 07. _____ | 08. _____ | 09. _____ | 10. _____ |

"Negua joan da ta" kanta: <https://www.youtube.com/watch?v=7jrRM7y8yHA>

Emaitzak
01.- gibelaldian 02.- lurreko 03.- antzina 04.- aldiatsun 05.- Arren
06.- Ferekatu 07.- oihurik 08.- moduan 09.- aditzen 10.- alboa

aldizkaria

Gure ikasleak



Sonia Minguelez
Bilboko
47 urte
Ulibarri Euskaltegiako ikaslea, A2 maila

Hainbat enpresatan idazkari lanetan aritu ostean, orain langabezian dago Sonia, eta hizkuntzak ikasteko baliatu du etenaldia. Hiru hizkuntza aldi berean! Euskara egunero Ulibarri Euskaltegian, eta ingelesa eta frantsesa bere kabuz.

Hiru hizkuntza aldi berean, ez al da lan handia?

Bai! Lan handia da. Urritik bost orduko euskara ikastaroa egiten ari naiz euskaltegian, eta, nahiz eta batzuetan gogorra izan, merezi du. Hasieran ez nuen tutik ulertzen, ez nekien esaten hitz bat ere euskaraz, baina orain pitinka-pitinka gauza naiz telebista euskaraz ikusteko eta hainbat liburu euskaraz irakurtzeko. Oso harro sentitzen naiz.

Egia al da euskara oso hizkuntza zaila dela?

Bai, bai! Nire iritziz, oso zaila da, euskara oso hizkuntza aberatsa delako. Zailtasuna non dagoen? Batez ere, nire ustez, hitz egiteko orduan, esaldien ordena alderantzizkoa da, erdararekin konparatuta.



Baina lortu daiteke, ezta? Zu zara adibiderik onena!

Bai bai! Kar-kar-kar.

Zergatik erabaki duzu Ulibarri Euskaltegian ikastea?

Euskaltegi honetan langabeentzako euskara ikastaroak antolatzen dituztelako, doan, eta horretaz aparte, hemen ikasitako lagun bat ezagutzen dudalako eta haren eskarmentua ona izan delako.

Zerk bultzatu zaitu euskara ikastera?

Euskaldunekin harremanak edukitzeak eta euskal kultura eta gure hizkuntzaren jatorria ezagutzeak, eta batez ere, lana aurkitzeko aukera edukitzeak.

Euskaltegian antolatzen ditugun kultura ekintzetan parte hartu duzu, zer iritzi duzu horien gainean?

Bai, nire ustez, jarduera hauek oso baliagarriak dira ikasleentzat, ikasleen artean oso giro ona sortzen laguntzen dutelako. Gainera, beste pertsona batzuekin euskaraz hitz egiteko aukera ematen du. Aberatsa da oso.

Hainbat kultura ekitalditan parte hartu dugu, Azkuna Zentroan eta Euskal Museoan egon gara. Oso ondo. Bisita gidatuetan gidariei euskaraz entzutea eta ulertzea oso inportantea izan da niretzat. Eskolatik kanpo beste leku batzuetan euskaraz komunikatzea eta euskaraz bizitzea.

K

kultura

Gure ikasleak



Eduardo Florido
Galdakaokoa
38 urte
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, C1 maila

Automobilgintza- eta elektronika-irakaslea lanbidez, piano-jole eta flamenko-kantaria afizioz eta orain euskaltegian murgilduta dugu buru-belarri euskarako C1 agiria eskuratzeko liberatua.

Azalduko diguzu zer ikusirik duten ingeniari-tza elektronikoak eta flamenkoak?

Curriculum bitxia dut, bai, kar-kar!

Unibertsitatean ingeniari-tza elektronikoa ikasi nuen eta automobilgintza- eta elektronika-irakaslea naiz Basauriko Lanbide Heziketako institutuan. Horixe da nire lana. Baina, bestalde, beti izan dut flamenkoa gustuko, eta horretan ere aritzen naiz, abesten eta pianoa jotzen.

Euskaldun flamenkoa zara zu.

Bai. Galdakaokoa naiz ni, txikitari D ereduari ikasi nuen; beraz, euskaraz ondo moldatzen naiz. Baina nire aita, Malagakoa da, Rondakoa, hain zuzen ere, eta ama, Extremadurako hegoaldekora da, ia-ia Huelvakoa.

Nondik datorkizu flamenkorako zaletasuna?

Zure familian badago aurrekaririk?

Betidanik entzun dut edozein motatako musika, flamenkoa, rock and rolla, euskal kantak... Nire etxean afizio handia egon da. Aitak gitarra pixka bat jotzen du, eta beti entzun ditut Andaluziako eta flamenkoaren munduko kantak. Pianoa jotzen dut eta flamenko-abeslari tradizionala naiz, "Eduardo Florido, flamenkoa". Bestalde, taldetxo bat daukat, "Los Primos", eta horiekin ere flamenkoa egiten dut, baina ez hain tradiziokoa, ez hain zorrotza. 15 urte daramatzat kantuka eta leku askotan izan gara: Euskal Herrian, Kantabrian, Errioxan, Gaztela eta Leonen, Aragoi... nahiko mugitzen gara.



Zer duzu gustukoan, flamenko tradizionala ala fusioa?

Guztia gustatzen zait, baina onartu behar dut flamenko tradizionala kantatzen dudanean gehiago disfrutatzen dudala. Momentuaren arabera, bata edo bestea.

Etorkizunean flamenkoa eta euskara.

Bai, "Lau teiltatu" kanta euskaraz egiten dugu, eta Mikel Laboaren "Hegoak" ere bai. Etorkizunerako proiektu bat dut buruan: flamenko tradizionalerako kantetan, *soleá*, *seguidilla* eta horietan, euskarazko idazkiak sartzea. Ez da inoiz horrelakorik entzun, tradizioko flamenkoa euskararekin bat eginda. Euskara oso hizkuntza polita da, eta musika aberastasuna da; eta horrek beti dakar bizitzan onura.

Eduardo Florido Rubio - "La Bien Pagá" bulerriak: <https://youtu.be/1z1oTUv-5Cw>

aldizkaria

Kultur ekintzak



EITB – Euskal Irrati Telebista
2019/03/04

EITBren egoitza bisitatu dugu eta irratia-aren funtzionamendua bertatik bertara eza-gutzeko aukera izan dugu. Platoak, erredakzioa, irratia... komunikazioaren munduan murgildu dira gure ikasleak.

“MARGOLARIA” AURRESTREINALDIA
2019/03/22

“Margolaria” Mikel Urdangarin kantariaren gaineko filmaren aurrestreinaldian izan gara, EITBko egoitzan. Oier Aranzabal zuzendaria bertan izan da, eta Mikel Urdangarin kantariak berak hainbat abesti eskaini ditu zuzen-zuzenean filmaren amaieran.



EUSKARA IBILTARIA
2019/03/28

Euskararen Herri Hizkeren Atlas lanean oinarrituta, erakusketa prestatu du Euskaltzaindiak Euskal Museoa. Bertan euskararen hitz eta hotsak irakurri, entzun, usaindu eta horiekin jolastu gara. Bideo, audio, joko eta puzzleen bitartez, zentzumenekin jolastu dira ikasleak.



euskara
ibiltaria


Kultura

Denbora pasak

Esaldia Osatu

Idatzi hitz hauen sinonimoak dagozkien zenbakien azpian eta Txillardegiren esaldi ezagun bat osatuko duzu.


1. Soinu
2. Mandatu
3. Sorkuntza
4. Ondasun
5. Zur
6. Abesti
7. Taula
8. Ospetsu
9. Garai
10. Lantegi
11. Eremu
12. Jarrai



EMAITZAK
Hitzak: 1. musika; 2. enkargu; 3. sorrena; 4. ondare; 5. egur; 6. kanta; 7. oholtza; 8. ezagun; 9. sasoi; 10. fabrika; 11. alor; 12. segi.
Esaldia: Euskara da euskaldunon aberria.

Letra Zopa

KORRIKA herri askotan hasi da. Hemen zortzi daude, aurkituko dituzu?



EMAITZAK. Letra zopako herriak: Iutera, Trebiñu, Hendaida, Orreaga, Karrantza, Andocain, Atharratze, Maule.



aldizkaria



kultura

2019